

**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAMENDU ETA
FUNTZIONAMENDUAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKO 2015EKO
TXOSTENA****I.- ESKUMENA**

Txosten hau egin da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6.1.a artikuluan ezarritakoaren babesean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak 6.1 artikuluan xedatzen duenarekin lotuta, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak 16.a artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Txosten honek funtzio publikoari berariaz edo ondorio gisa eragiten dioten alderdiak baino ez ditu aztertzen, eta, beraz, zuzendaritza honek ez ditu gainerako gaiak kontuan hartuko.

II.- XEDEA ETA HELBURUA

Aipatzen den aurreproiektuaren helburua da erreferentziazko lege bat izatea, Euskal Administrazio Publikoaren zeregina arautzeko hainbat arau antolatzeko eta hiritarrek haren inguruan duten iritzia hobetzeko.

Aurkeztutako idatzian antolamenduzko egitura, erakunde berriak sortzeko printzipio aplikagarriak edota aurretik dauden beste erakunde batzuen partaidetzarako printzipio aplikagarriak zehazten dira. Horrez gain, Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundearen Erregistroa eratzen da.

Planteamendu horretan funtsezkotzat jotzen da hiritarrei zerbitzu emateko printzipioa garatzea. Bertan eskubide eta betebeharrak jasotzen dira, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikuluan oinarritzen direnak.

Gainera, herritarren partaidetzarako prozesu parte-hartzaileen ikuspegitik, Administrazioari une bakoitzean herritarren partaidetzarako bide egokiena, esku-hartze publiko bakoitzaren garrantziaren, konplexutasunaren eta dimentsioaren arabera, hautatzea ahalbidetzeko edozein prozesuk izan behar dituen oinarrizko baldintza eta berme zenbait finkatu nahi dira.

Lege honen helburua da, bertako artikuluetan jasotzen den definizioaren arabera: Euskal Administrazio Publikoaren antolamendu eta funtzionamendua arautzea, bere pertsonifikazio modu guztietan.

Lege honen ondorioetarako, Euskal Administrazio Publikoa edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, haren Administrazio Instituzionala eta hura osatzen duten erakunde instrumentalak.

Lege honen xedea da antolamendu- eta funtzionamendu-baldintza egokienak sortzea Euskal Autonomia Erkidegoan jarduerak egiten dituzten sektore publikoen koherentzia hobetzeko. Hala, lortu nahi diren helburuen artean, espresuki aipatzen dira, honakoak:

a) Arau eta irizpideak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egitura organikoa eta funtzionala egituratzen duten prozesuak garatzeko.

b) Definitzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan barneratzen diren erakundeak, pertsonifikazio juridiko publiko edo pribatuari so Administrazio Orokorrak apartekoak direnak; arautzea zer betekizun bete behar diren haiek eratzeko edo aurrez dauden beste erakunde batzuetan parte hartzeko, eta ezartzea zer erlazio-mekanismo izan behar duten Administrazio Orokorrarekin, zeinaren menpe baitaude eta zeinari atxikitzen baitzaizkio.

c) Definitzea zerk justifikatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek beste erakunde batzuetan parte hartzea, baldin eta, lege honetan ezarritako irizpideen arabera, beste erakunde horiek ez badira sektore publiko horretako kide bilakatzen parte-hartze horren ondorioz.

d) Irizpideak ezartzea aztertzeko ea badagoen eraginkortasun-gabezia, gainjartze eta bikoiztasunik beste sektore publikoekin –bereziki sektore publiko osoa eta estatuko sektore publikoa kontuan hartuz– eta, baldin badago, halakoak konpontzeko jarduera-proposamenak egiteko.

III.- LEGEZKOTASUNA

Txosten hau emateko, indarreko araudia hartu behar da kontuan, eta, beraz, aurkeztutako proiektua araudi horretara egokitu behar da, eta zehazkiago, honako hauetara:

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko (EFPL) uztailaren 6ko 6/1989 Legea.
- Enplegatu publikoaren oinarriko estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legea.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.
- Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektua.

IV.- EDUKIA

1.- Erakundeen antolamendua

Hirugarren eta laugarren artikuluetan euskal sektore publikoaren aplikazio-eremua eta kontzeptua definitzen dira, lege honen ondorioetarako. Lege hau aplikagarri da: Administrazio Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organismo autonomoetan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, sozietate publikoetan eta fundazio eta partzuergoetan.

Halaber, aplikagarri da partaidetzako erakunde, sozietate eta pertsona juridikoetan, zuzenean edo zeharka aurrekoen bidez, eta baita izaera publikoko beste erakunde batzuetan, baldin eta haien sorrera-arauan edo lege honetan hala xedatzen bada.

Hurrengo artikuluan, laugarrengean, euskal sektore publikoaren aplikazioa, aitorpena eta kidetasuna aipatzen dira, euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoak barne; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak; bakoitza bere Administrazio Institutuzionalarekin eta mendean eta atxikita dituzten gainerako erakunde instrumentalekin.

Euskal sektore publikoan sartzen dira honako hauek ere: Eusko Legebiltzarra, batzar nagusiak, toki-korporazioak, maila instituzional bakoitzeko gobernuak, aipatutako instituzio horietan parte hartzen duten edo instituzio horien kontsultetarako edo aholkularitzarako erabiltzen diren organoak (betiere haiek sortzeko legeak independentzia ematen badie funtzioak gauzatzeko), eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Halaber, bertan barneratzen da beste edozein erakunde, baldin eta txertatuta dagoen sektore publiko horren baitan duen posizio baterakoa, sektore horretan erakundeak duen posizio baterakoa, horietako bati eskusiboki egotzi ahal balitz, erakundea dagokion sektore publikoan barneratzea eragingo balu.

Edozein kasutan, egoera hauetakoren bat betetzen duen erakunde oro barneratuko da: zuzendaritza edo pertsona bakarreko ordezkarietako organo gorena kargu politiko bat betetzen duen pertsona bat izatea, aurreko funtzio horren arabera; zuzendaritza edo pertsona bakarreko ordezkarietako organo gorena artikuluko honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek hautatzea zuzenean; administrari bakarreko sistema bat izanik, hura betetzen duena artikuluko honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek hautatzea; kide anitzeko gobernu- edo administrazio-organoa izanik, kide gehienak artikuluko honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek hautatzea; kapital edo ondarearen zatirik handiena artikuluko honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek aurrekontuetatik eratortzea, haiek erakundeari helarazita.

2.- Goi-kargudunak eta zuzendaritza-organak

a) Zuzendaritza-organotako egitura administratiboa eta harreman juridikoa

Hamahirugarren artikuluan goi-organak eta goi-kargudunak definitzen dira, eta hamalagarren artikuluan Autonomia Erkidegoko Administrazio-organak.

Jarraian ematen den ereduaren administrazioaren antolamendua arautzen da, bereiziz, alde batetik, antolamendu-sailkapena, goi-organak eta zuzendaritza-organak barneratzen dituen, eta, beste alde batetik, organotako titular diren pertsonen araubide juridikoa: gobernu- kideak, goi-kargudunak eta zuzendaritza- kideak.

Sozietate publikoetako zuzendaritza nagusiei dagokienez, zuzendaritza-organoko modura sailkatzen dira. Haatik, organismo autonomoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen kasuan, zuzendaritza nagusietako titular diren pertsonen

harreman juridikoa jasotzen den arren, Organismo Autonomoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako zuzendaritza nagusiak ez dira organo modura sailkatzen, eta horren falta edo gabezia sumatzen da. Zehazki, zuzendaritza-organoen modura sailkatzea faltan botatzen da.

Jarraian, modu sistematikoan, egungo egoerari buruzko koadroa islatzen da.

	Goi-organoa	Zuzendaritza-organoa
Gobernuko Kideak	Saila	
Goi-kargudunak	- Sailburuordetzak - Lehendakarietako Idazkaritza Nagusiak - beste zenbait organo, beren sorrera-arauetan hala ezartzen denean.	Sail etako Zuzendaritzak - Euskadik kanpoan dituen Ordezkaritzak. - Organismo Autonomoetako Zuzendaritzak - Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako Zuzendaritza Nagusiak - beste zenbait organo, beren sorrera-arauetan hala ezartzen denean.
Zuzendaritzako langileak		- Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako Zuzendaritza Nagusiak - Sozietate publikoetako Zuzendaritza Nagusiak - beste zenbait organo, beren sorrera-arauetan hala ezartzen denean.

Koadro horretan ikus daitekeenez, goi-organoen titulartasunean nahiz goi-organoen lanpostuak bete ezin ditzakeen zuzendaritza-organoen eta zuzendaritzako langileen titulartasunean jardun dezaketen goi-kargudunak ditugu.

Halaber, ikus daiteke zuzendaritza-organoko titularren izaera zuzendaritzako langile edo goi-kargudun modura betetzeko aukera beren sorrera-arauan islaturik duten zuzendaritza-organoen sor daitezkeela, aukera hori Administrazioak auto antolakuntzarako duen eskumenaren arabera aldagarri izanik.

"13.4.e.- Erakundea eratzeke legean edo erakunde instrumentala menpeko den sailaren egitura-dekretuan goi-karguduntzat ezartzen direnak".

Izaera juridikoa duen eskema bat atxikitzen da, eguneratua, zuzenbide pribatuko erakunde publiko ezberdinetako zuzendaritzei buruzkoa

<u>ZUZENDARI NAGUSIAK</u>	Izaera Juridikoa	Izendapena	Legedia	<u>SAILEKO ZUZENDARIAK</u>
EVE	Zuzendaritzako langileak	Gobernu Kontseiluak	64/1985 Dekretua, 5. artikulua, organo	

		izendatuta 175/2013 Dekretua	errektoreak	
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Goi-karguduna Zuzendari maila	Gobernu Kontseiluak izendatuta 117/2013 Dekretua	5/2008 Legea, 10. eta 11. artikulua	
Finantzen Euskal Institutua	Zuzendaritzako langileak	Gobernu Kontseiluak izendatuta	218/2008 Dekretua, 10. artikulua, Estatutuak	
EITB	Ez da zehazten	Legebiltzarrak Hautatua, Lehendakariak Izendatua, 10/2013 Dekretua, Lehendakaria	5/1982 Legea, 16. artikulua	Sozietate Publikoetako Zuzendariak administrari bakar izango dira
ETXEPARE Institutua	Zuzendaritzako langileak (Hautaketa- prozesuan izaera horrekin funtsatua)	Gobernu Kontseiluak izendatuta 151/2010 Dekretua	88/2008 Dekretua	
EUSKO TRENBIDE SAREA	Zuzendaritzako langileak	Gobernu Kontseiluak izendatuta	6/2004 Legea, 10. eta 13. artikulua.	
UNIBASQ UNIQUAL	Zuzendaritzako Langileak	Entitateko Gobernu Kontseiluak izendatuta	7. eta 8. artikulua 13/2012 Legea 204/2013 Dekretua, 10. eta 13. artikulua.	
URA	Goi-karguduna	Gobernu Kontseiluak izendatuta 135/2013 Dekretua	1/2006 Legea, 11.6 artikulua	Saileko zuzendariak Zuzendaritzako langileak Goi- zuzendaritzako kontratuak
LANBIDE (egun organismo autonomoa)	Goi-karguduna	Gobernu Kontseiluak izendatuta	218/2008 Dekretua	Saileko zuzendariak Goi-kargudunen kontsiderazioa Gobernu Kontseiluak izendatuta 329/2010 Dekretua, Estatutuak
OSAKIDETZA	- Zuzendaritza Nagusia Kudeaketa arloko goi-karguduna - Dibisioko	Entitateko Zuzendaritza Kontseiluak izendatuta 27. artikuluko araubidearen baitakoa	8/1997 Legea, 27. artikulua Administrariaren izendapena Gerentzia edo zuzendaritza profesionaleko eginkizunak	<u>Osasun- zerbitzu</u> etako <u>erakunde</u> etako <u>gerenteak</u> Zuzendaritza- kargua 27. artikulua

	zuzendariak Zuzendaritza- kargua		Libreki izendatu eta bereizia Administrazioarekin aurrez loturarik ez duten pertsonen sarbidea Administrazio Kontseiluak ezarritako ordainsariak - 14/1988 Legea muga Langile estatutarioei zerbitzu berezietako egoera administratiboa aitortzen bazaie Langile finkoei nahitaezko eszedentzia onartuko zaie 255/1996 Dekretua, 10. eta 11. artikulua, Estatutuak	baitakoa Izendapena eta bereizketa entitateko zuzendari nagusiak <u>Osasun-zerbitzuetako zuzendaritzako langileak</u> Zuzendaritzako langileak Izendapena eta bereizketa entitateko zuzendari nagusiak Ezinbestekoa izango da deialdi publikoa Osakidetzarekin aurrez loturarik ez duten langileak, soilik Zuzendaritza Nagusiaren izendapen batekin lotzen dira
--	--	--	---	---

Aipatzen den lege-aurreproiektuan egituraketa hau proposatzen da:

	Goi- organoa	Zuzendar itza- organoa	Enplegatu Enplegatu Publikoa	Gobernuk o kidea	Goi- kargud una	Zuzendarit zako langileak	Izendapena sailburuaren Dekretuz
	X	---	---	X	---	---	---
Sailburuordea	X	---	---	---	X	---	X
Lehendakaritzako idazkari nagusia	X	---	---	---	X	---	X
Sailetako zuzendariak	---	X	---	---	X	---	X
Kanpoko ordezkariak	---	X	---	---	X	---	X
Organismo autonomoetako zuzendari nagusiak eta lehendakariak	---	X	---	---	X	---	X
Zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako	---	X	---	---	X	---	X

zuzendari nagusiak eta lehendakariak							
Saileko edo Dibisioko zuzendariak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan	---	X	---	---	---	X	---
Sozietate publikoetako zuzendari nagusiak	---	X	---	---	---	X	---
Fundazio eta Partzuergoetako Lehendakaritza eta Zuzendaritza Nagusiak		X				X	

Ikus daitekeenez, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako zuzendaritza nagusietako pertsona titullarrak Dekretuz izendatzea eta goi-kargudun izan daitezela proposatzen da.

Autonomia Erkidegoko sektore publikoa Administrazio orokorrak eta Administrazio Instituzionala osatzen zuten erakundeek osatzen zuten.

Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legea onartzearen ondorioz, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 7. artikulua aldatzen da, lehen aldaketa Administrazio Publikoa eta sektore publikoa bereiztea izanik. Testu berriarekin gerta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikokoak izan gabe, sektore publikokoak diren entitateak egotea.

Testu berriak bi ezberdintasun ditu aurrekoarekin alderatuta; lehenik eta behin, sektore publikoko entitate modura jasotzen dira Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 5. artikuluan eta Tokiko Araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 87. artikuluan aipatzen diren sozietate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta partzuergoak.

Bigarren aldaketak, aldi berean, bi ondorio dakartza: lehenengoa, sozietate publikoak administrazio instituzionalaren eremutik bereiztea eta, bigarrena, aurrekoaren eraginez, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen vis atractiva deritzona sorraraztea organismo autonomoekiko.

Goi-karguaren izaera aitortzeak berekin dakar postu horren izendapena eta etetea Dekretuz burutu beharra. Halaber, berekin dakar, Aurrekontuetako legeetan haien soldata zehaztea, Administrazio Publikoko goi-kargudun guztien soldatak banakatzen diren artikuluen barnean.

Zenbat eta ugaritasun gehiago, aipagarria da bi erakunde moten artean eskumenei dagokienez dagoen ezberdintasuna. Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeek eskumen publikoak inplikatzeko dituzten funtzioak betetzen

dituzten bitartean, sektore publikoko gainerako erakundeek debekaturik dute halako funtzioak betetzea.

Zuzendaritza honen ustez, egitura organiko osoago batean Lurralde-zuzendariordetza eta -ordezkaritzak barneratuko lirateke Autonomia Erkidegoko Administrazioa zuzendaritza-organoetan.

b) Zuzendaritzako langileen erregulazio juridikoa

Aipagai den legearen xedeak egitura administratiboa zehazten du. Aitzitik, euskal enplegu publikoaren legearen xedea euskal funtzio publikoa arautzea eta langileen araubide juridikoa zehaztea da. Zuzendaritzako langilearen irudia administrazio publikoen zerbitzura dauden langile motak titulupean barneratzen da, haren azpititulu modura bada ere, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 legean. Horren ondorioz, zuzendaritzako langile erreferentzia euskal enplegu publikoko legearen eremuari dagokio. Lege hori eratze-fasean dago egun.

3.- Egitura-dekretuen edukia

Egitura-dekretuen edukia 16.5 artikuluan islatzen da. Bertan, sail baten egitura organiko eta funtzionala osa dezaketen organoak jasotzen dira:

"Egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretuek, *sortzen diren zuzendariordetza, organo periferiko, lurralde-bulego eta lurralde-ordezkaritzez gain*, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan egonik sailari atxikita dauden erakundeak ere zerrendatuko dituzte. Era berean, zera identifikatuko dute ezinbestean: kide anitzeko zein organo azaltzen diren egituren, eta horietatik zeintzuk erabiltzen jarraituko den."

Argitasunaren mesedetan eta okerreko interpretaziorik egin ez dadin, 5. atala aldatu egin behar da, testu-zati hau sartuta:

"Aurretiaz existitzen delarik, sailtako dekretua aldatzearen ondorioz lehen egitura-dekretuan barneratzen ez den organo oro ezabatutzat joko da ondorio guztietarako."

Proposamen hori iraganeko esperientzia baten ondorio da, izan ere, aurreko egitura-dekretuetan barneratzearen ondorioz existiturik, zuzendariordetza horiek ez ziren jaso idazten diren egitura-dekretu berrietan. Eztabaida juridiko gogor baten ondorioz zera ondorioztatu zen: erabat ezabaturik ez zeudenez, zuzendariordetza horiek existitzen jarraitzen zuten.

Aipagai den aurreproiektuan erreferentziako lege baten aldeko hautua egiten da, Euskal Administrazio Publikoaren zeregina diziplinatzen duten arauen multzoa antolatzeko. Gainera, gaur egun, funtsezkoa da hiritarrek haren inguruan duten pertzepzioa hobetzea, eraginkortasuna, efizientzia, gobernu ona eta gardentasuna bultzatuz, lege-proiektuaren arrazoien zioan bertan jasotzen den moduan.

Horren ondorioz, egitura-dekretuan espresuki islatu behar da egitura-dekretuan espresuki jasotzen ez den organo ororen kanporatze efektiboa.

4.- Kide anitzeko organoak

Zein diren 18. artikuluan aipatzen diren kide anitzeko organoak, dagozkien sailetakoa egitura-dekretuetan sailkatzen diren haiek direla uler dezakegu.

Kide anitzeko organoetako funtzioak zerrendatzeari dagokionez, bi aipatu behar dira nahitaez; dagozkion txostenak igortzeko funtzioa, gerora beste organo batzuek erabakiak har ditzaten, eta kontrolarekin lotutako funtzioak.

Gai horri dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 9.2 artikulua islatu behar da ezinbestean. Bertan, eskusibotasunez aipatzen dira eta karrerako funtzionarioek burutzeko, *eskumen publikoak gauzatzerakoan edo interes orokorrak babesterakoan Estatuaren eta Administrazio Publikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetza inplikatzan duten funtzioak*.

Bada funtzio horiek zer diren adierazteko zehaztaper bat, doktrinak eta jurisprudentziak bermatua:

Agintearen adierazpen izateagatik barneratzeko funtzioak:

- Zehapen-funtzioak
- Baimentzekoak
- Ikuskapen-funtzioak
- **Kontrol-funtzioak**
- Fiskalizazio-funtzioak
- Administrazio-prozeduretako ebazpen-proposamenak instruitu eta eratzea.
- Poliziaren aginduak hedatzea
- Arauak eratzearekin lotutako funtzioak

Estatuaren edo Administrazioaren interes orokorrak babesteko kontzeptuaren barnean sartzeko funtzioak:

- Fede-emate publikoa
- Administrazioako erregistroen kudeaketa
- Bilketa
- Dagokion lege-aholkularitza
- Ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren nahiz aurrekontuen kudeaketaren barne-kontrol eta -fiskalizazioa.
- Kontabilitate-funtzioak

Gainera, hala euskal enplegu publikoaren lege-aurreproiektuaren proposamenean nola Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legean, karrerako funtzionarioei eskusiboki dagozkien funtzioak jasotzen dira:

“19.2.e artikulua.- Soilik langileentzat gorde ahal izango dira

Autonomia Erkidegoko kudeaketako organo bereziei, foru- eta toki-organismo autonomoei eta merkataritzako organismo autonomoei dagozkien lanpostuak, baldin eta honako hauek inplikatzan ez badituzte: agintea, dagokion lege-aholkularitza, funtzio publikoa, ikuskapena, haren mende egonik Administrazioak gauzatzen duen ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren **kontrol** edo fiskalizazioa. **Kasu horietan, funtzionarioentzat gordeko dira.**

Kontrol-funtzioa ezabatu egin behar da, karrerako funtzionarioek betetzekoa baita.

Kide anitzeko organoei dagokienez, alderdi hauek aztertu behar dira:

a) Hautaketa eta hornidurarako auzitegiak espresuki ezabatzea, horiek Enplegu Publikoaren Legean arautzen baitira.

b) Kide anitzetako organoetako kideek, hautaketa eta hornidurarako auzitegietak kide ez badira, asistentzia-dietak ez dituztela jasoko, baizik eta, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta indarreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera, haietako kideei dagozkien dietak eta kalte-ordainak soilik.

c) Kide anitzeko organoko kide modura burutu beharreko lanak (esate baterako, txostenak, irizpenak, aktak, etab.) ez ordaintzea.

d) Kide anitzeko organo horietako kideei, beren izaerari dagokienean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikoen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea aplikatuko zaie.

5.- Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakundearteko Batzordea eratzen da

Administrazio publikoen artean egiazko koordinazioa lortzeko asmoz, 7. artikuluan Euskal Sektore Publikoa arrazionalizatzeko eta dimentsionatzeko Erakundearteko Batzordea eratzen da.

Bere osaera eta funtzionamendua arau bidez arautuko diren arren, kide anitzeko organoa dela kontuan izanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluko artikulua aplikatuko zaizkio, eta zehazki 22.2 artikulua, hauxe baitio parte-hartzeari buruz:

"Administrazio publikoetako kide anitzeko organoek beren jarduteko arauak ezar edo osa ditzakete, organo horietan gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek parte hartzen badute; eta gauza bera egin dezakete hainbat administrazio publikotako ordezkariak osatutako kide anitzeko organoek, nahiz eta organo horietan parte hartu ez gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek.

Paragrafo honetan adierazitako kide anitzeko organoak dagokien administrazio publikoan sartuko dira, baina ez administrazio horretako hierarkiazko egiturari, baldin eta organoaren eginkizunek edo izaerak horretara bultzatzen ez badute behintzat."

Administrazioak berariaz kanporatzen ditu bere egitura hierarkikotik, eta koordinazioko organo horietako kide izateak ez dakar kontzeptu horren ondorioz ordainsaririk jasotzeko eskubiderik. Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua eta hartako aldaketak aplikatzekoak izango dira.

6.- Kudeaketa bateratuko zentroak

Kudeaketa bateratuko zentro bat sortzen denean, Gobernu Kontseiluaren dekretuan, era berean, bere funtzioak egoki betetzeko giza baliabideen arteko koordinazioa ere sartu behar da ezinbestean.

7.- Sektore publikoko subjektu modura jarduteko printzipio orokorrak

Zerbitzu-, legezketasun-, eta koherentzia-printzipioez gain, interesgarria izango litzateke zehazki esleitura dituzten xede eta helburuen inguruko instrumentaltasun-printzipioa gaineratzea, hori baita erakundearen existentzia justifikatzen duen printzipioa.

8.- Sektore publikoaren funtzioak

39. artikuluan eta hurrengoetan erakundeen araubide juridikoa aipatzen da. Administrazio eskumenak gauza ditzaketela berariaz adierazten den arren, jabe ohiak, organismo autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek izan ezik, ez da deus esaten sektore publikoko gainerakoen inguruan.

Egoera horren ondorioz hainbat interpretazio egin daitezke, iraganean gertatu bezala. Horrenbestez, ezinbestekoa da administrazio eskumenak gauzatzeke debekua jasotzea.

Proposatzen den zuzenketa barneratzea bat dator erabat aipagai den aurreproiektuaren helburuarekin, hau da, Euskal Administrazio Publikoaren zeregina diziplinatzen duten arauen multzoa antolatzeke erreferentziazko lege bat xedatzea. Gainera, gaur egun, funtsezkoa da hiritarrek haren inguruan duten pertzepzioa hobetzea, eraginkortasuna, efizientzia, gobernu ona eta gardentasuna bultzatuz, lege-proiektuaren arrazoiak zioan bertan jasotzen den moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroan gobernu eta administrazio organoetako kide diren pertsona fisikoak identifikatzen dira 51. artikuluan. Erregistroak izaera publikoa izango duela adierazten da. Dena den, edozein kasutan, datu pertsonal delikatuak errespetatu eta babestu egin beharko dira. Administrazio Orokorreko sail bati atxikiko zaio, zeinak Administrazio Publikoko eskumenak izango baititu, eta baliabide material eta pertsonalak jarriko baititu funtziona dezan.

8.- Azkentzea eta sektore publikotik kanpo geratzea

Jarraian, aurreproiektuan azkentzearen edo erakunde publikotik kanpo geratzearen ondorioak arautzen dira. Sektore publikoko erakundeen balizko azkentzearen kasuan, sailak betetzen ari zen funtzio publikoak subrogatzea proposatzen da.

Proposamen horrek berekin dakar sektore publikoko erakundeak baitaratutako funtzioen artean, administrazio publikoari dagozkionak eta ez dagozkionak bereiztea, eta, horrela, azkentzen den erakundean betetzen zituzten funtzioak aintzat hartuta, administrazio orokorrak subrogatzeko langileak eta subrogatuko ez dituenak hautatzea.

Halaber, sektore publikokoak ez diren baina Autonomia Erkidegoko Administrazioak parte hartzen zuen erakundeen kasuan (horregatik enpresa pribatu izateari utzi gabe). Artikuluetan jaso behar da derrigorrez, Administrazioak sektore publikotik kanpoko sozietateetan edo, are, sozietate publikoetan zuen partaidetza murrizteak, ez duela esanahi, inolaz ere, funtzioen edo langileen gaineko subrogazio automatikoa sortzen duenik. Gauza bera gaineratu behar da fundazio publikoen eta partzuergoen kasuan.

9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroa

Erregistro hori sortu eta bere izaera publiko eta informatiboa zehazten da. Administrazio Orokorreko sail bati atxikiko zaio, zeinak Administrazio Publikoko eskumenak izango baititu, eta baliabide material eta pertsonalak jarriko baititu funtziona dezan.

Gainera, parte-hartzen duen lankidetzaren organoen eta Administrazio publikoen arteko lankidetzaren ekonomiko, tekniko eta administratiboarekin lotuta sinatutako hitzarmenen (32.4 artikulua) erregistro elektronikoa bat mantenduko da eguneratuta.

10.- Lege-proiektu, plan estrategiko eta jardueraren garrantzitsuen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa: definizioa eta ebaluatzearen prozedura

Herritarren zerbitzura egokitutako euskal administrazioaren jardueraren eta funtzionamendua izateko xedez, lege-proiektu, plan estrategiko eta jardueraren garrantzitsuen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa proposatzen da, halakotzat ulertzen delarik: *"Modu zehatz eta ordenatuan eskuratutako informazioa behatu, neurtu, aztertu eta interpretatzeko prozesu sistematikoa, politika publikoko aukera desberdinek izan ditzaketen kostuen eta onura ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren zenbatespen kualitatiboa eta, ahal den heinean, kuantitatiboa egitera bideratua –diseinuaren, praktikan jartzearen eta eraginaren ebidentzietan oinarrituz proposamenak eta balorazioak egiteko–, eta organo eskudunak hartu beharreko erabakiari buruzko txostena ematen duena. Ahal bada, aurretiazko ebaluazioak kontuan hartuko du aurreikusitako esku-hartze publikoek indarrean dauden beste esku-hartzeekin edo egitekoak direnekin daukaten interakzioa eta esku-hartze horiek, oro har hartuta, daukaten efektua."*

Jarraian prozedura eta pertsona parte-hartzaileak finkatzen dira.

Politika Publikoak Ebaluatzearen Erregistro bat garatuko da arauz, eta partaidetza-prozesuetan parte hartu nahi duten Autonomia Erkidegoko interes-talde adierazgarrien erregistroa sortzen da.

Gaineratu behar da erregistro horretaz Administrazio publikoko gaietan eskumena duen Saileko langileak arduratuko direla.

11.- Administrazio Elektronikoa eta Administrazio Publikoaren Gardentasuna

Testuan arauz sortuko dela zehazten bada ere, egiaz dagoeneko lege horretan sortzeko bidean da Administrazio Elektronikorako Aholkularitza Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako Sailaren baitakoa, arlo horretan euskal Administrazio publikoen arteko lankidetzak eta partaidetzarako organo tekniko modura, funtzioak zerrenda daitezen eta bere osaera gerora arauz gara daitezen (74.2 artikulua).

Paragrafo honetan adierazitako kide anitzeko organoak dagokien administrazio publikoan sartuko dira, baina ez administrazio horretako hierarkiazko egitura, baldin eta organoaren eginkizunek edo izaerak horretara bultzatzen ez badute behintzat."

Administrazioak berariaz kanporatzen ditu bere egitura hierarkikotik, eta koordinazioko organo horietako kide izateak ez dakar kontzeptu horren ondorioz ordainsaririk jasotzeko eskubiderik. Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua eta hartako aldaketak aplikatzekoak izango dira.

Kontseilua atxikitzen zaion saileko baliabide material eta pertsonalak izango ditu Kontseiluak, funtziona dezan

V.- ONDORIOA

Jarraian txosteneko zenbait ondorio adierazten dira, hain zuzen, Euskal Administrazio Publikoaren lege-aurreproiektuari buruzko 2014ko maiatzeko gure txostenarekin lotuta **berriak** diren ondorioak:

1.- Hamalaugarren artikuluan Organismo Autonomoetako eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako Zuzendaritza Nagusietako zuzendaritza-organoren kalifikazioa barneratzea.

2.- Egitura-dekretuan espresuki islatu behar da egitura-dekretuan espresuki jasotzen ez den organo ororen kanporatze efektiboa. Argitasun gehiagorako eta okerreko interpretazioak ekidite aldera, 16. artikuluko 5. atala aldatu egin behar da, testu-zati hau sartuta:

"Aurretiaz existitzen delarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko, eta haietako funtzioak eta jardute-eremuak zehazteko Dekretua aldatzearen ondorioz lehen egitura-dekretuan barneratzen ez den organo oro ezabatutzat joko da ondorio guztietarako."

3.- Zuzendaritza honen ustez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzendaritza-organoen Lurralde-zuzendariordetza eta -ordezkaritzak barneratzea falta da.

4.- Kudeaketa bateratuko zentro bat sortzen denean, Gobernu Kontseiluaren dekretuan, era berean, bere funtzioak egoki betetzeko giza baliabideen arteko koordinazioa ere sartu behar da ezinbestean.

5.- Kide anitzetako organoetako kideek, hautaketa eta hornidurarako auzitegiaren kide ez badira, asistentzia-dietak ez dituzte jasoko, baizik eta, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta indarreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera, haietako kideei dagozkien dietak eta kalte-ordainak soilik.

6.- Kide anitzeko organoko kide modura burutu beharreko lanak (esate baterako, txostenak, irizpenak, aktak, etab.) ez ordaintzea.

Gure aurreko txostenean dagoeneko jasotako ondorioak jasoz amaitzen da:

1.- Sozietate publikoek, fundazioek eta partzuergoek eskumen publikoak izateko debekuari dagokionez, erabiltzen den espresioa ezberdina da kasu bakoitzean (41., 42. eta 43. artikulua). Horrenbestez, komenigarritzat jotzen da idazketa bateratzea. Horren ondorioz, aipatutako artikuluetan ez ezik, artikulua guztietan aldatu behar da eskumen administratiboei buruzko aipamena eta aginte publikoaren aipamena. Horren ordez, terminologia homogeen bat erabili behar da, kasu guztietarako berdina izango dena, esate baterako, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuan islatzen den legezko terminoa: "Eskumen publikoak gauzatzea edo interes orokorrak babestea inplikatzeko duten funtzioak."

2.- Egungo erakundeak araudi berrira egokitzeko epe bat emango duen xedapen iragankor bat falta da.

3.- Administrazio Institutuzionaleko erakunde guztiak berdintzen dituzten artikulua guztietan partzuergoen aipamen oro ezabatzea eta, horrenbestez, besteak beste, eskumen publikoak gauzatzeko ahalmena ezabatzea.

4.- 18.2.e artikulua ezabatu egin behar da, kontrol-funtzioa ezabatuz, karrerako funtzionarioek betetzeko baita.

5.- Hautaketa eta hornidurarako auzitegiak espresuki ezabatzea, horiek Enplegu Publikoaren Legean arautzen baitira.

6.- Kide anitzeko organo horietako kideei, beren izaerari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Institutuzionaleko kargu publikoen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea aplikatuko zaie.

7.- Artikuluetan jaso behar da derrigorrez, Administrazioak sektore publikotik kanpoko sozietateetan edo, are, sozietate publikoetan zuen partaidetza murrizteak, ez duela esanahi, inolaz ere, funtzioen edo langileen gaineko subrogazio automatikoa sortzen duenik. Gauza bera gaineratu behar da fundazio publikoen eta partzuergoen kasuan.

8.- Saileko langileei lege honetan sortzen diren erregistroez arduratzeko zeregina, administrazio publikokoak, esleitzen zaiela jaso behar da.

Hau da egindako txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako besteren baten mende uzten dena

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren (e)(a)

Sin.: Carmen Miralles Jorda
Aholkulari juridikoa

ONTZAT EMANA
Sin.: Juan María Barasorda Goicoechea

FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA